

Zer dago lurzoruan?


HELBURUAK

- Lurzoruaren ezaugarri batzuen berri izatea.
- Ukimenaren bidez, lurzoruaren ehundura eta osagaiak hautematea.
- Aurkitutako elementuen sailkapen sinpleak egitea.

MATERIALAK

- ◆ Taketak, sokak, kartoiak, kartulinak eta zurezko kutxatilkak.

Ariketaren garapena




1. Inguruko orube, parke edo lorategi batera irtengo gara, edo, are errazago, eskolako jolastokira. Gutxienez, hiru lursail aukeratuko ditugu, geroago aztertzekotan, eta lau taketaz eta soka batez zedarrarituko ditugu. Onena lurzoru mota ezberdinak dituzten hiru ingurune hautatzea litzateke: aparkalekua, lorategia, baratzea...

2. Aukeratutako sail bakoitzeko lurzoru laginak hartu-



ko ditugu; ondoren, marraztu edo kartulina handi batean itsatsi ahal ditugu. Horrela, lehenengo behaketa egingo dugu: laginen arteko ezberdintasunen zehaztapena eta sailkapena. Urtao ezberdinetan egin dezakegu lan hori, urtaroen arteko antzekotasun eta ezberdintasunak ikusteko.



3. Gure inguruko sailetako lur laginak kutxatiletan ipini eta etiketa jarriko diegu (parkea, jolastokia, baratzea, orubea...).

4. Azkenik, lur laginak urarekin nahastuz, tindagai naturalak lortzen saiatuko gara; horrela lortzen ditugun koloreekin, marrazkiak egin ditzakegu, bai eta aurpegia margotu ere.

